

Terapia alternatiboen
gatik asfixia eta itotze
harriskua.

Hortzapenaren
analgesiarako
erabilitako erretsinazko
lepokoak

*Riesgo de asfixia y
atragantamiento por
terapias alternativas.
Los collares de resina de
ámbar, como analgesia
a la dentición, peligro para
la salud*

F. Salmón Antón*, O. Rotaetxe Vacas,
A. Monasterio Rodríguez, N. Salmón
Rodríguez, E. Gonzalo Alonso, J. Martín
González

*Arrigorriaga-Ugao ko Osasun Zentroa. Haur
istripu senadagile zaintzailea.

Correspondencia: Dr. Fernando Salmón Antón.
Servicio Pediatría. Centro de Salud
Arrigorriaga-Ugao. Paseo Urgoiti, 10.
48480 Arrigorriaga
E-mail: fernando.salmonanton@osakidetza.net

2010ko iraila hilabetea, astebete batean
18 hilabete baino gutxiagoko hiru haur
antzman genituen, gure osasun zentroko
pediatria kontsultara zetozen, erretsinazko
ale lepokoak ekartzen zituztelarik (Irudi 1).

Bi lepoko mota eskeintzen dira: Batzuk
Herri Baltikokoak direnak, ustez zuhaitz
kristalduko anbar erretsina naturalezkoak,
azalarekiko kontaktuan gorputzaren
beroaz anbar olio batzuen jario xehea
askatzean azalak barnerratzen ditu. Eta
beste batzuk, anbar sintetikoak (polistitirolo plastikoa da, poliestirenotzat
ezagutua, ondorio elektromagnetiko hutsa
edo txikia duena) nerbio-sisteman ondorio
elektromagnetikodunak, umearen min eta
nekean eragiten dute.

Erabileraren arauak dagokienez
aholkatzen da: ahalik eta hoberen moldatu
behar da unearen lepoan, inolako gunerik
utzi gabe lepoko eta lepoaren artean, eta
inolako kontraindikaziorik ez daukala.

Produkto bera direnaren susmoa dugu,
eta biak internetaren bidez lor daitezke,
baina parafarmazia denda batzuetan,
farmazian, puerikultura dendetan ere bai.

Erkidego batzuetan baztertu dira: bere
gaitasun terapeutikoak egiaztatu ez direlako,
eta gaitera bere publizitate eta zabalpenek
Osasun Lege Orokorren kontrol eta
eskakizunak betetzen ez dituztelako; bere
indikazioak atzerritar hizkuntzaz
aurkezteagatik; eta sokak 220 mm. baino
gehiagoko luzera izateagatik (jostailuen
zihurtasun arauak, hiru urte baino
gutxiagoko umeei zuzenduak diren



Irudi 1.

puerikultura gaiak). Gainera, sokaren
trakzioari duen erresistentzia oso handia ez
da, aleak banatzeko aukera dutelarik, beraz
asfixia arriskua itotzearenari batzen zaio.

**Erretsinazko lepokoekiko gure
lehentasunezko ekimena HAUR
ISTRIPUEN PREBENTZIOAN sartzen da,
zehazki "asfixia eta objektu txikiak
itotze" posibilitatearen prebentzioan.**

ZAINBIDE EGITARAUA ren atal
berezia da E.H.E. ko Haur Osasunaren
Programaren barne. Pediatria eta erizain
batzuk PROCHASCA metodoan hezi dira
(aurrebegiratu, begiratu, prestaera,
ekimenaldiak edo mantenimendua).
Prebentzio mailan programaturiko hiru
interbentzio egiten dira Zainbide Egitarau
Gidaren laguntzarekin (Irudi 2), non argi
eta Garbi azaltzen da lepokoaren erabileraren
aurka, baita objektu txikiak uztearen aurka
itotze edo asfixia sortzeko arriskuagatik.

Gainera, hauraren osasun kartilan
honen inguruan bi interbentzio daude,



Irudi 2.

TABLA I. HAURREN SEGURTASUNERAKO GIDALIBURUAK

1 Esnatzen Haurren segurtasunerako gidaliburua 0-6 hilabete bitartean	Arropa: Adin honetan haurrak guztia ahora eramateko joera duenez, arriskutxuak diren akzesorioak ebitatu behar dira, baita eraztunak, kateak edo eskuturreak ere. Txupetea: Zintzilik eramateko kate homologatuak erabili; eta ez erabili bestelako katerik, kordoirik edo la-zorik.
2 Gatamar Haurren segurtasunerako gidaliburua 7-12 hilabete bitartean	Arropa: Adin honetan haurrak guztia ahora eramateko joera duenez, arriskutxuak diren akzesorioak ebitatu behar dira, baita eraztunak, kateak edo eskuturreak ere. Elikadura: Jatekoa kontrako eztarritik joan ez dakion ez utzi haurra bakarrik jaten dagoen bitartea, batez ere jateko solidoak, ogi zatiak, gailetak edo fruitak jaten dagoenenan.
3 Aztertzen Haurren segurtasunerako gidaliburua Urtebetetik gora	Jostailuak: Pieza txiki desmuntagarriak jostailuak ebitatu egin behar dira, haurra itotzeko arriskua dutelako.

lehen urteko, lehen urtearen ondoko eta eskolaurreko aholkuetan.

Lepokoa hariz elkarri lotutako bola txiki batzuek osatuta dago; eta bola bakoitza ondokoetatik bereiztuta dago korapilatxo baten bitartez. Egitura honek, lepokoa bere ardatz inguruan biratzea errazten du, lepokoa estutuz eta asfixia arriskua handituz (Irudi 4 eta 5).

ONDORIOAK

- Haurren Osasun Programa, Osasun Hezkuntza orokorra eta Haurren Istripuak Sahiesteko Programak bereziki, baliabide asko eta denbora handia kontsumitzen du Lehenengo Arretan.
- Balizko dentizio mina kentzeko anbarrezko lepokoen aurkako neurri konkretuek; hiru bider baino gehiagotan martxan jarritakoa bizitzako

lehenengo 24 hilabetetan zehar, metodo eta ikasmaterial egokituak erabiliz asfixia eta itotzea sahiesteko helburuarekin, ez dute espero genuen arrakasta izan detektatuko kasuengan. Hau frustrazio handia izan da guretzat.

- Hala ere, ezuste zakar honek, hau da, ama batzuek gure alarma ahotsari eman dioten lepokoa kentzearen kontrako erantzunak (nahiz eta behin eta berriro lepokoaren arriskuak azpimarratu ohizko kontrol guztietan), Osasun bermatzeko erabiltzen dugun interbentzioen egokitasunari buruz pentsatzera behartzen gaitu.
- Arazo nagusia, gure ustez, gurasoek lepoko horiek benetan sendatzen dutela eta premiazkoak direla sinetsi egiten dutela da. Batzuk lepokoarengatik ez balitz haien umeak, hagin-aterak sortzen duen mina dela medio, desnutritzeko edota hiltzeko arriskuan oingo zirela ihardesten digute, inolako



Irudi 3.



Irudi 4.



Irudi 5.

TABLA II. HAURRAREN OSASUN KARTILA

Lehengo hilabeteak	Istripuen prebentzioa: Sehaskako barroteen tarteak, bainu-ontziak, automobilerako segurtasun jesarlekuak.
Lehen urtea	Istripuen prebentzioa: Ez erabili begiztak, eraztunak, eskumuturrekoak edo lepoko kate lasaiak. Umeak dena ahora eramateko joera duenez, ez utzi berak hartzeko moduan jostailu edo beste edozer gauza txiki (pilak, botoiak, fruitu lehorrak, etab...)
Lehen urtetik aurrera eta eskolaurrekoa	Istripuen prebentzioa: Lehen urteari buruz esandakoa gogoratu eta adierazitako gomendioak berriro irakurri. Oraindik ere izaten da kontrako eztarritik joateko arriskua, batez ere, gauza txikiekin eta fruitu lehorrekin.

zalantzarik gabe gainera. Beste lepoko erabiltzaile batzuk kontsultara etortzen direnean lepokoa kentzen dietela ahopeka onartzen digute, beraiekin haserre ez gaitezen, berriro jarritz ateratzen diren bezain laster.

- Prebentzioan ereitea eta biltzea gauza ezberdinak direla argi izan dugu

betidanik; eta zoritxarrez ereiten duenak, ez du beti uzta biltzen.

BIBLIOGRAFIA

- Haurren istripu lesioetatik babesteko ZAINBIDE proiektua

- EZNATZEN 1. Haurren segurtasunerako gidalibura. 0 – 6 hilabete bitartean
- GATAMAR 2. Haurren segurtasunerako gidalibura. 7 – 12 hilabete bitartean
- AZTERTZEN 3. Haurren segurtasunerako gidalibura. Urtebetetik gora
- El Correo de Zamora, 01 de julio de 2008
- Haurraren Osasun Kartila. Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco
- Benito J, Mintegi S, Sánchez Etxaniz J. Diagnóstico y Tratamiento de Urgencias Pediátricas, 4ª ed. Madrid: Ergon; 2006.
- Salmon Antón F. Dotación Equipamiento del Centro de Salud, para atender Urgencias Pediátricas. En: Benito J, Luaces C, Mintegi S, Pou J (eds.). Tratado de Urgencias en Pediatría. Madrid: Ergon; 2005. p. 885-899.
- Muñoz MT, Hidalgo MI, Clemente J. Pediatría Extrahospitalaria. Fundamentos Clínicos para Atención Primaria. 4ª Edición. Madrid: Ergon; 2008.
- Guía de Práctica Clínica sobre Diabetes. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, 2008
- Casado J. Urgencias Respiratorias. Cuadernos de Urgencias Pediátricas en Atención Primaria. Madrid: Ergon; 2002 .